

Faust

Aita ONAINDIA'k

Kondairan beti izan dira olako
nor batzuk, ospe aundikoak, gure
artean *Mateo Txistu*, *Pernando*
Amezketarra ta antzekoak. Gauza
ta jazokun asko ezarten jakez, naiz
gurenak izan naiz ez, personai ta
nor batzuei. Eta urteak eta men-
deak zear mozolo ori bizkar-gaiñ
eroan bear izaten dabe. Gisa orreta-
koa duzu Faust, batez be Alema-
nian. Eta ez edozein maillakoa, goi-
maillakoa baiño.

Lilluragarri da Faust'en irudia.
Zirikatzaille, egiaz, gizaseme sor-
tzaile, kreatzaille danarentzat.
Errealitateak askotan giza-ezaupe-
nari ta egintzari mugak jarten dau-
tsoz, eta muga orreik ausi nai ditu-
naren ikur eta sinbolu dozu Faust.
Artista askok oialetan edo edergarri
ta itxuretan jasorik itxi nai izan dabe
irudi au eta Marlowe, Lessing,

Goethe, Pushkin, Lenau, Valery,
Mann baten erti-gai biurtua dozu.
Or dituzu batez be musikalaria,
Wagner, Berlioz, Schumann, Gou-
nod, Listz eta abar gai onek lillura-
tuta.

Iduri au askok eroana da zinera,
baita porrot galantak aurkitu be.
Beste batzuk gauza arrigarriak ira-
garriz, Oswald Spengler'ek adibi-
dez, "faustokeria" kultur-maillan
jarri eban, ekiñean eta burrukan
erakusten dan doixtar eta ipar-alde-
koen eziñegon eta artegatasunaren
eredu ta erakusmentzat noski. Uste
zanez, Faust'ek zeru ta lurreko in-
darrak bere esku eukazan, ezpiri-
tuak be bere naira ekar-uxatzen zi-
tularik. Gaur-egunean, ikasleen ar-
tean eta, ba-dago olako zerbait.
1966'an Faust'i buruzko bibliografi
bat agertu zan, H. Hennings'ek

... Emen daukagu Faust bat lits agurgarrikoa, teologian Wittemberg'eko eskolatik maisutza lortu ebana; Luter, beronen irakasle edo izan zanak, ez dau toki onean izten, baiña sasoi aretan erlejiño-gaiak lurrin jota egozan. Faust au, egia esan, izan zeikean, orduko beste asko lez, geroko gauzai eta bidenabar ezkutukoai emona. Ez da arritzekoa, istoriari berea ezartera ezkerro.

Irudi onen gain ipini oi da beste bat, gizaki iruzurti, arrakero, guzurontzi ta zoratzaille batena; goi-indar edo barru-kemen altsuz aberats, bere iruzurrak ta almena merke salduz aterik ate ebillena, auzi eta buruko-min ez gitxi sorturik. Dalako orrek, batzuk diñoenez, Krakobia'ko Ikasgo Nagusian ikasi ei eban, emen bait egon garai atan azti ta magi-jakitea erakusten zan eskola. Alkimirako eukan lera ta zaletasun biziak lortu eutson personai oni ulea kendu edo ultzeko oreka (krema) aurkitu al izateko zoria. Alkimiak ez eutson ekarri urre sofikurik ez gaztetasunaren elixirrik, baiña tinteak beintzat emon eutsozan adiña estali ta kukutzeko, bizarrari ta uleai kolore urdin-illuna emonez. Egi-egiaz "arte baltzen" maisu zan. Nabari da, batzuetan, leienda ta kontaketak lits-itxura irri-egingarriak artzen eta atsegiñez pozetan jarten, gai orretan utsak ikusten baldin ba'ditu; ule erreak, esate baterako, margoztuen orde, etsipena ta asarrea ule zuriak gorde ta soillak erakustsi bear dabezanaren aldetik; narrua kenduz egindako uldutzeak,

eta XVI'garren mendeko alemanai ain errez irri-barrea sort-arazo oi jaken beste gauza guzti orreik.

E.M. Butler'ek bere idazlan "*The Fortunes of Faust*" (1952), Faust'oak anai bikoitzak zirala diñosku. Eurotatik batak baita artu eikean, bein baiño geiagotan, bestearen izena ostu edo bear bada eroan egin bear. Baiña ori apika uste arriskuegia dozu. Esan ete leiteke, ausaz, nortasunaren zatitze baten aurrean gagozala? Batek besteari oso-osoan aurkakoa dan izaera ezarririk?

Ostatuko gauzak

Garai areitako aztru ta maguak etziran mundutik aldenduta bizi ziranak. Bestera baiño, bidez bide ta ostatur ostatu ebiltzanak genduzan. Ziur-ziur toki orreitara joango ziran txanpon eta lauzuriko batzuk irabaztera, euren jakituri merke, truku, amarrukeri ta lillurakokeriakaz. Faust, taberna, ardanetxe ta iskanbil-zalea zan; edale ona ta barre-algara uts.

Jakintza-zale zan orrez gain, jakin, ezagutu gauzen guna. Eta berez ta liburuen bidez ezin ebana eskuratu nairik, deabruagaz egin eban ituna, eleizetan be aldarrikatzen zana. Johann Gast'ek, artzain portestanteak bein, abots zoliz otsegin egin eban Faust'ek adiskidetasun barrukoak eukala infernuko indarrakaz. Onexek erakutsi ei eutson ostatu baten ardao zelari ugaritu: ezpataz zulo bat egin maian eta andik urten ei zan ardao eder-ederra. Gainera,



Español talde bat, egun maiain eta... artian edier-ediernak.

txakur baltz batek laguntzen ei en-
tson, aztruaren "morroa" zama.
txakur itxura itxi ta giza-itxura
errez-errez artzen ebanak. Asko be-
asko ziran baita illarti (nigromante)
aren eskutik urrezko edo zifarreziko
txanpon dizditsuak artzen ebiza-
nak; bitxiok gero ezereiz bihurtzen ei
ziran.

Melanchton teologuak be,
Faust'en errikoak, esan ebenez,
bein aregaz topo egin edun ostatu
batean, eta milla lelokoti ta gamota-
bakeri entzun bear izan outsozan.
Izugarría! Faust'ek esan esan outson,
zemaika, maiain egozan plater eta

botella guztiak dantzian ipintan eba-
zalar. Baita itargari outson outsona-
ko zerbitzu guztiak ardere arte jar-
tzekeu gai zala. Baita sukaldere
trastak be, beste gauza itargari
geiago be, zallagunak izuná be su-
matzekeu gauza zala aintze emonak
enstalarák. Kristo lez be agertu nar.
Aitek lez ibetak be mairiak egin et-
kezala-na. Melanchtoniek deatari
guztiero "iraketa" dienu outson.

Bein beste hantarra sinest-erue
naitzen outson mairis-garra eder ta-
nen guñeun arribatzen zela, eta li-
hantarrak outson outsonak mairi-
monda gozo-guztiak ebuzkeu egite-



... eta... ardao eder-ederra!
botella guztiak dantzan ipuin
zala; baita iragari euzen lab
ko zerbitzu guztiak aiez zid
zako gai zala, hardin uita
resnak be, beste gauza am
ziago be, zaillagoak itari be
tzeko gauza zala aizen em
stalarik. Kristo lez be ager
ek lez berak be mirariak egi
zala-la. Melanchton ta de
tien "iroleta" deito ezan
ein bere lortarra...
zan euzen maats-parrak
ainean aurkitzen irakur
uak euren aitzakia na
a gozo-gozak chafela re

bat-batean iratzari zituen, eta
al izan eben batzuk besteen su-
orak oratzen aurkitzen zirala. Eta
onetan beste ainbeste astakeri
ta etxeetan, alkimi-zale, izar-
gauza arrigarri guztien sorbu-
ta iturri bai litzan.

adimenaren lurraldeak, Faust'i
ez dauka mugarik, gizaldie-
tar. Agaz eta onegaz, baita
beste munduko andrazkoakaz be,
matasunezko ar-emon ikusgarriak
ziran bazterretan. Baiña
ta mostra utsak ziran bere
kariak. Faust'ek gaindituta euke-
za giza-ezagueraren mugak, jazo-
te guztia ta jazoteko guztiaren
zalarik. Origaitik, Faust'ek
oi eban bera gai zala Platon
Aristotele'ren idazlan galduak
ta bir-eskuratzeke, bere be-
pak itxi ta oro idazirik dagoan le-
tan kokatuaz.

Pizkunde galtzarrean egin zan
natanun-eztandan, eta adimenaren
darretan uste geiegi ta laua Izadia-
mona beronen ezkutuak igarri ta
urkitzeko, barru-barruraino sartu
ta orduko jente jakitunen izatean
ta gizaseme arrigarriak sortu zi-
tan, baita oso arraruak be, euren
baitan, "Mikrokosmos" —mundu
loki—ziranez, "mundu aundiaren"
tzutu ta zador guztiak aurkitzea
ate ebenak. Faust'en zantzu berezi
ta ondo be ondo dator Rembrandt
margolariak egiñiko iduri baten.
Faust irakaslea bere estudioan dau-
kapu mundu aundi edo "makrokos-
mosari" deika.

Autu-mautuak istori egiñik

Faust'i buruz diarduen lenengo li-
buruak il-aztruaren "egiñak eta ja-
zorikoak" dituzu; eta dirudianez, ez
dira oinarrizten aozko literaturan
bakarrik, baita Schedel'en kronike-
tan be. Emen esaten bait da Faust
bera arrotzen zala deabrua oso-oso-
rik bere mende, bere zerbitzuan eu-
kala esanaz; 1587'an, Frankfort'en
Johann Spitz'ek argitaratu eban lan
bat, "Johann Faust maisuaren Isto-
ria" deritxona. Emen aitatzen da ze-
lan arimea emon eutsan deabruari
epetan, zelako gauza arrigarriak
ikusi zituan eta egin ebazan bestee-
kin, azkenez merezi izan eban saria
artuaz.

Idazlan au "Faust'en liburua"
—"Das Faustbuch"—lez ezagutzen
da. Asieratik ikusten da lan onetan
giz-urenaren griña bizia ikasteko ta
gauza mirarizkoak egiteko, dalako
Mefistofele batekin egindako ituna,
paktoa, baita jarraian agertzen da,
Wagner otseiña, zelanbait drama
orren ondorengo ta amai lez izango
dana. Troia'ko andere aundiak da-
kaz gogora, Elena ta abar. Ondorio
legez, gizasemeei gizon arroputz,
aundinai, burgoi, berdanga ta buru-
gogorrai gogoratzen dautsez euren
zoradura ergelak gain dakartsezan
arriskuak eta kalteak.

Sarri argitara emona izan da libu-
ru au, laburtu ta barriztatu ta garbi-
tua ain zuzen. 1674'an Pfitzer medi-
kuak egiña agertzen da, barriztatua;
1683'an C.Ch. Kirchner'ek egiña,
txit garbitua, oso irakurria izan zan

... emenaz entzar en la fie
... Que buena con matar
... En la Chomera gente
... Como te mueren
... do despues en la cenera
... Quen sabe! Deben
... pelo al ladrón y a la ho

MAGUS MAXIMUS
KUNDLINGENSIS
D. FAUSTUS



HISTORIA

Von D. Johann

Fausten/dem weitbeschreyten

Zauberer vnd Schwarzkünstler/

Wie er sich gegen dem Teuffel auff eine bes

ondere weise verhalten; Was er dartzwischen für

seltsame Abenteuer gesehen; selbs angerich-

tet vnd getrieben; bis er endlich sein

nen wol verdieneten Lohn

empfangen.

"Das Faustbuch", "Faust'en liburua", 1587'an
Frankfurt'en Johann Spitz'ek argitaratu ebana.

berau, guztiz irakur-errez zalako. Argitalpen au, XVII'garren mendean egiña izanik be, guganaiño eldu dana 1725'nekoa da; ementxe agertzen da lenengoz Mefistofele izena, eta berau, gatxaren ezpiritua, kexaz agertzen jaku giza-iduria artu bear izan ebalako Faust'ek eskatzen eutsazan deabrukeriak egin al izateko. Au ganorabako bat legez agertzen da bere kasketaldi ta griñak eragiñez bizi izanik. Zori ganorabako bat legez agertzen da bere kasketaldi ta griñak eragiñez bizi izanik.

Zori txarrak daroa, ibai baten narrasdoan ola iduri; gora egaz dagi noizik-noizera, baiña laster jatxi oi da beera uneak eskintzen dautson egoe-rako deiak ots-eginda.

Goethe'k be argitalpen auxe irakurri eban, beronek "Olerkia ta Egia" deritxon idaztian diñoskunez, gure Urretxindorrak lez, ferietan saltzen ebezan kanta paper antzear erosita. Zoratua geratu zan berau irakurriaz. Aztru zaarra, deabrua, milla nor arrigarri buruan barru-barru sarturik geratu jakozan, eta ordutik bolbolka ebilkion izate muiñean antzeko zerbait osotuteko asmoa. Faust'ek, bere iduriz, kemena ta adorea ixurtzen dau, olerkari, musikalaria ta artistak eurekandu dabezanak. Eredu batek bakarrik, au da, askoren barnetik jagiz datorren kemenezko erdi-une batek iraunazo leike toki ta urteetan zear indar orren aunditasuna. Faust'ek adierazten dausku ezagutze ta egitearen antzerki margatza. Jakiteari ta egiteari, gizonaren bizitzan, jarten jakozan mugak argi ta garbi azaltzen dira emen. Pizkunde aro barria joian itxartu ta jagiz, eta onen indarra adierazo nai eban al giñoan.

Trumoi asko jo dau geroztik. Egia esateko, kulturak ez dira oso-rik ilten mendeen ibilliz, ezta Faust'en garaiko zorakeriak be; oraindik erdi aroko gizonaren zorakeri ta uko ta guzurtapenak irakin dirakie, gaur be gizona gertu bait dago bere arimea deabruari berari saltzeko bere pentsamentu ta bere

...zabalaztearren. Faust ez da
...bat bakarrik, Faust aztikeriaren
...bera dozu.

Goethe euskeraz

Goethe, kargu garrantzizkoz as-
...urkitu arren, bere bizitza guz-
...idazlanari lotua ibilli jakun.
...berrioz eta itz askatuz eundaka arti-
...ta liburu mamindu zituan; eta
...ta Schiller ditugu aleman lite-
...barrutiko idazlerik onenak.
...*Der Faust* Goethe'k gazteta-
...bere barruan eroana ta zatika
...zia.

Nik be, Goethe'k idazteko lez be-
...euskeraz jarteko gogo biziak as-
...bitik joa, azkenez joandako ur-
...an amaitu ta argitaratu neban.

Euskeraz irakurri geinke, beraz,
doixtar idazle trebearen lan ospe-
tsua. Bego emen, aren itzaurrean
esana: "Indarrari ta ekintzari ga-
rrantzi berezia ezarten eutsoen
doixtarrak. Beraz, ezpiritu sendoen
eta argi-zuzi distikorren garaian bizi
zan Goethe, olerkari senez oparo
jantzia, adimen argi zorrotz baten
jaube, zentzunez oarkor, iduri ta
itxurak jasoteko zurr, bur-muiñean
gogaiak borboka, gauzarik lau ta
zirtzillenak edertzeko gai".

*J. GARCIA FONT*ek "*Historia y
Vida*" aldizkarian, 179 zenbakian,
argitaturiko "*Los escándalos del
doctor Fausto*" lanean oiñarritua.



GUDALETXEAN

Gudalburuak gudaletxe bat ikertzen dau. Gudari gazte bat ikustean
... dirautso:

- Zelako janaria emoten dautsue emen?
- Beti gabiltz burrukan beragaitik.
- Ori, bikaiña da.
- Ez ain bikaiña, Jauna, —gudariak erantzuten dautso—. Galtzen
...anak jan egin bear dau!